

Azaroak 25: indarkeria matxistaren aurkako eguna

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta, urtero bezala, Arabako udalerri eta herriek berriro ere indarkeria matxistari ez esateko aukera izango dute. Egun seinalatu horren inguruan, hilabete osoan zehar, hainbat ekintza antolatu dira Araba osoan, herritarrak sentsibilizatu eta kontzientziatzeko helburuz.
Udalek, kuadrillek, Arabako Foru Aldundiak eta hainbat elkartek elkarlanean antolatu dituzte jarduerak, LAIA sarearen baitan. Programa anitza eta herri askotara zabaltzen dena osatu da: topaketak, autodefentsa feministako tailerrak, antzerkia, hitzaldiak eta solasaldiak —adineko emakumeei, gazteei eta herritar guztiei zuzendutakoak—, landa-eremuko emakumeen saretze-ekimenak eta kontzientziazio-ekintzak, besteak beste.
Ekimen horien bitartez, indarkeria matxista salatu eta ikusarazi nahi da, eta, batez ere, gizarte osoari gogorarazi indarkeria hori errotik desagerraraztea guztion ardura dela. Zatoz, parte hartu eta egin bat indarkeria matxistaren aurkako konpromisoarekin.

25 de noviembre: Día contra la violencia machista

El 25 de noviembre se conmemora el Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres y, un año más, los municipios y pueblos de Álava volverán a tener la oportunidad de decir NO a la violencia machista. En torno a esta fecha señalada, y a lo largo de todo el mes, se han organizado numerosas actividades en todo el territorio con el objetivo de sensibilizar y concienciar a la ciudadanía.
Ayuntamientos, cuadrillas, la Diputación Foral de Álava y diversas asociaciones han organizado de manera conjunta estas actividades, en el marco de la red LAIA. Se ha elaborado un programa diverso y repartido por numerosas localidades: encuentros, talleres de autodefensa feminista, teatro, charlas y coloquios —dirigidos a mujeres mayores, a jóvenes y al conjunto de la ciudadanía—, iniciativas de creación de redes entre mujeres del medio rural y acciones de concienciación, entre otras.
A través de estas propuestas se busca denunciar y visibilizar la violencia machista y, sobre todo, recordar a toda la sociedad que erradicarla de raíz es una responsabilidad compartida. Ven, participa y súmate al compromiso contra la violencia machista.

Añana



IGANDEA 22 DOMINGO
10:00

IX. INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO MARTXA IX MARCHA CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

Indarkeria matxista salatzea eta errefusatzea; eraildako emakumeak eta haien hurbilekoak gogoratzea; indarkeria jasaten duten emakumeei baliabide eta zerbitzuen berri ematea eta ez daudela bakarrik aldarrikatzea / Denunciar y rechazar la violencia machista; recordar a las mujeres asesinadas y a sus personas cercanas; trasladar a las mujeres que sufren violencia que no están solas y que disponen de recursos y servicios

Ribabellosa / Lantarón



OSTEGUNA 5, 12, 19 JUEVES **18:00-20:00**

"MENOPAUSIA, NEURE BURUA ENTZUTEN" – EMAKUME HELDUENTZAKO TAILERRA MENOPAUSIA ETA SEXUALITATEARI BURUZ "MENOPAUSIA, ME ESCUCHO" – TALLER FORMATIVO DIRIGIDO A MUJERES ADULTAS SOBRE MENOPAUSIA Y SEXUALIDAD

Emakume helduei zuzenduta dago eta menopausia eta sexualitatea genero ikuspegitik jorratzen ditu. Azaroan zehar bi orduko hiru saiotan, klimaterioaren aldaketa fisiko eta emozionalak ulertzeko, mitoak desmuntatzeko eta sexualitatean eta harremanetan duten eragina hausnartzeko ezagutzak eta tresnak eskainiko dira / Está dirigido a mujeres adultas y aborda la menopausia y la sexualidad desde una perspectiva de género. A lo largo de tres sesiones de

dos horas durante noviembre, se ofrecerán conocimientos y herramientas para comprender los cambios físicos y emocionales del climaterio, desmontar mitos y reflexionar sobre su impacto en la sexualidad y las relaciones (EMAIZE)

Armiñón

Aiaraldea



IGANDEA 22 DOMINGO 18:00

'PUTO AMOR' ANTZEZLAN KOMIKOA OBRA TEATRAL CÓMICA

Maitasun erromantikoaren mitoa eta genero-sozializazioa umorearen bidez zalantzan jartzen du; emakumeen sexualitatea, maitasuna eta gorputzen gaineko aginduak ikuspegi feministatik lantzen ditu / Cuestiona el mito del amor romántico y la socialización de género a través del humor; aborda la sexualidad y los mandatos sobre los cuerpos de las mujeres desde una perspectiva feminista (Dora Gálvez)

Okondo



OSTIRALA 6,13 VIERNES 18:00

NESKA GAZTEAK SARETZEN: MUGIMENDUA, EMOZIOAK ETA AHALDUNTZEA

Neska gazteentzako espazioa, mugimenduaren eta gorputz-adierazpenaren bidez emozioak lantzeko, elkar ezagutzeko eta sareak sortzeko. Jon Zalduegik (Emoki Elkartea) dinamizatuta, autoestimua, ahalduntzea eta neska gazteen arteko lotura sustatzen dira ikuspegi feministatik / Espacio para chicas jóvenes para trabajar las emociones a través del movimiento y la expresión corporal, conocerse y crear redes. Dinamizado por Jon Zalduegi (Emoki Elkartea), se fomentan la autoestima, el empoderamiento y el vínculo entre chicas jóvenes desde una perspectiva feminista (Jone Zalduegi)

Artziniega

Amurrio



LARUNBATA 14 SÁBADO 17:30 - 20:00

HITZ EGIN DEZAGUN SEXUARI BURUZ ¿HABLAMOS DE SEXO?

Lotsarik gabe galdetzeko, zalantzak argitzeko eta sexualitateaz naturaltasunez, epaiketarik gabe eta dena jakin beharrik gabe hitz egiteko tartea / Un espacio para preguntar sin vergüenza, resolver dudas y hablar de sexualidad con naturalidad, sin juicios y sin tener que saberlo todo (Florencia Arriola)

Amurrio



LARUNBATA 21 SÁBADO 20:00

NO SOLO DUELEN LOS GOLPES

Bere esperientzia pertsonaletik abiatuta, egileak bikote-harremanetako indarkeria matxista eta maitasun erromantikoaren mitoak salatzen ditu, umorea eta hurbiltasuna baliatuz. Indarkeria matxista kolpeetara mugatzen ez dela erakusten du, eta harreman osasuntsu eta parekideei buruzko gogoeta sustatzen / A partir de su experiencia personal, denuncia la violencia machista en las relaciones de pareja y los mitos del amor romántico, utilizando el humor y la cercanía. Muestra que la violencia machista no se reduce a los golpes y promueve la reflexión sobre relaciones sanas e igualitarias (Pamela Palenciano)

Amurrio

Laudio



OSTIRALA 6 VIERNES 18:30

REDIMIR Y ADOCTRINAR. EL PATRONATO DE PROTECCIÓN A LA MUJER

Frankismoan eta trantsizioan emakumeen gaineko kontrol moral eta instituzionala ikusaraztea; biktimen memoria eta erreparazioa aldarrikatzea; iragan hurbilari buruzko gogoeta sustatzea genero-ikuspegitik / Visibilizar el control moral e institucional ejercido sobre las mujeres durante el franquismo y la Transición; reivindicar la memoria y la reparación de las víctimas; fomentar la reflexión sobre el pasado reciente desde una perspectiva de género (Carmen Guillén)

Laudio



OSTIRALA 20 VIERNES 18:30

PERIODISMO Y VIOLENCIA MACHISTA: CÓMO DESMONTAR LOS BULOS

Indarkeria matxistari buruzko gezurrak eta desinformazioa identifikatzen eta desegiten ikastea; informazio-praktika txarrak eta isuri historikoak agerian jartzea; kazetaritza zorrotza eskubideen babes-tresna gisa balioestea / Aprender a identificar y desmontar los bulos y la desinformación sobre la violencia machista; visibilizar las malas prácticas informativas y los sesgos históricos; valorar el periodismo riguroso como herramienta de protección de derechos (Ana Bernal-Triviño)

Laudio

Arabako mendialdea *Montaña Alavesa*

OSTIRALA 20 VIERNES 19:00



NOLA MAITE DUGU EMAKUMEOK? PUTO AMOR, ¿CÓMO AMAMOS LAS MUJERES?

Komedia bat da, maitasun erromantikoari buruzkoa eta emakumeoi harremanak nola bizitzen eta ulertzen irakatsi diguten erakusten duena. Umorearen bidez, genero-sozializazioak gure maitasun-ereduetan utzitako arrastoak agerian jartzen ditu, eta harreman askeago eta parekideei buruzko gogoeta sustatzen / Es una comedia teatral sobre el amor romántico y la forma en la que a las mujeres nos enseñaron a vivir y entender las relaciones. A través del humor, saca a la luz las huellas que la socialización de género deja en nuestros modelos de amor y promueve la reflexión sobre relaciones más libres e igualitarias (Dora Gálvez)

Kanpezu



LARUNBATA 14 SÁBADO
10:30, 12:00, 13:30, 16:30, 18:00 eta 19:30

BERDINTASUNAREN ALDEKO V. ESCAPE ROOM V ESCAPE ROOM POR LA IGUALDAD

Iraganera bidaiatzera gonbidatzen gaituena feminismoaren historia markatu zuten emakumeen bizitza eta ondarea ezagutzeko: aktibistak, hezitzaileak, politikariak eta aitzindariak, guztion eskubideen alde borrokatu zirenak. Deszifratu enigmak, gainditu probak eta hausnartu lortutako aurrerapenez eta oraindik konkistatzeke dauden erronkez / Nos invita a viajar al pasado para descubrir la vida y el legado de mujeres que marcaron la historia del feminismo: activistas, educadoras, políticas y pioneras que lucharon por los derechos de todas. Descifra enigmas, resuelve pruebas y reflexiona sobre los avances logrados y los retos que aún quedan por conquistar

Peñacerrada

Arabako Lautada *Llanada Alavesa*



OSTIRALA 20 VIERNES 18:15

XI. IPUIN LABURREN LEHIAKETA – SARI BANAKETA XI CONCURSO DE RELATOS CORTOS – ENTREGA DE PREMIOS

Berdintasunaren aldeko XI. ipuin laburren lehiaketaren sari banaketa. Hamaika urte daramatzagu lehiaketa hau antolatzen, udalerriko eta inguruko hainbat pertsonaren parte-hartzearekin. Helburu bikoitza du: batetik, sorkuntza literarioa, sormena eta irudimena bultzatzea; bestetik, herritarrak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunaren eta LGTBI kolektiboaren aldarrikapenen alde sentsibilizatzea / Entrega de premios del XI Concurso de relatos cortos por la igualdad. Llevamos 11 años organizando este concurso, en el que participan diferentes personas del municipio y alrededores. Tiene un doble objetivo: por un lado, fomentar la creación literaria, la creatividad y la imaginación; por otro, sensibilizar a la población a favor de una igualdad real entre mujeres y hombres y de las reivindicaciones del colectivo LGTBI

Agurain



LARUNBATA 14 SÁBADO 19:00

HERTZ – DESDE LO MÁS PROFUNDO DE LA PATATA

Umore zorrotzarekin, antzerki fisikoarekin eta ironia dosi handi batekin, HERTZek gustatu beharraren premiaz, ezinezko emakume ereduez eta besteen begiradaren mende dagoen arrakastaren mitoaz egiten du barre / Con un humor afilado, teatro físico y una buena dosis de ironía, HERTZ se ríe de la necesidad de gustar, de los modelos de mujer imposibles y del mito del éxito siempre supeditado a la mirada ajena (Madame Señorita)

Ozeta-Ozaeta



OSTEGUNA 12 JUEVES 17:30 - 19:30

ARABAKO LAUTADAKO BERDINTASUN KONTSEILUAREN ETORKIZUNA ELKARREKIN ERAIKIKO DUGU? ¿CONSTRUIMOS JUNTAS EL FUTURO DEL CONSEJO DE IGUALDAD DE LA LLANADA ALAVESA?

Kontseilua indartzeko prozesu bat hasi dugu, eta zure parte-hartzea oso garrantzitsua da. Urte hauetan, Kontseilua emakumeak elkartzeko, esperientziak partekatzeko eta berdintasunaren alde lan egiteko gunea izan da. Orain, egindako bidea aitortu eta etorkizunari elkarrekin begiratu nahi diogu. Zer Kontseilu nahi dugu? Nola indartu dezakegu? Nola zabaldu parte-hartzea? / Hemos puesto en marcha un proceso para fortalecer el Consejo de Igualdad y tu participación es muy importante. Durante estos años, el Consejo ha sido un espacio para encontrarnos, compartir experiencias y trabajar juntas por la igualdad. Ahora queremos reconocer el camino recorrido y mirar juntas hacia el futuro. ¿Qué Consejo queremos? ¿Cómo podemos fortalecerlo? ¿Cómo podemos ampliar la participación

Agurain

Arabako Errioxa Rioja Alavesa

IGANDEA 22 DOMINGO

SEINALEAK BADAUDE, ALARMA PIZTU! (A25N TOPAKETA) ¡SI HAY SEÑALES, ALARMA! (ENCUENTRO 25N)



Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren (azaroak 25) harira, Arabako Errioxako Berdintasun Foroak eskualdeko topaketa antolatu du Bastidan, azaroaren 22an, "Seinaleak badaude, alarma piztu!" lelopean / Con motivo del Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres (25N), el Foro de Igualdad de Rioja Alavesa organiza un encuentro comarcal en Labastida el 22 de noviembre, bajo el lema "¡Si hay señales, alarma!"

Labastida

ASTELEHENA 23 LUNES 17:00–18:15



LANDA-EREMUKO EMAKUME NAGUSIENGANAKO GENERO-INDARKERIA: EZKUTUKOA ETA BEREZIA VIOLENCIA DE GÉNERO HACIA MUJERES MAYORES EN EL MEDIO RURAL: OCULTA Y SINGULAR

Landa-eremuko emakume nagusienganako genero-indarkeria ikusaraztea eta identifikatzen laguntzea, babesteko komunitate-sareak sustatuz / Visibilizar y ayudar a identificar la violencia de género hacia las mujeres mayores en el medio rural, promoviendo redes comunitarias de protección (Iratxe Herrero Zárate)

Villabuena de Álava

Baja eman | Darse de baja